

## Battittu Coyos

# «Euskara Iparraldean, beharbada, noizbait, latinaren gisan izanen da»

Zubererari buruzko tesi batekin hizkuntzalaritzan doktorea eta euskara irakaslea, Baionako Iker-eko egoitzan aurkitu dugu lanean. Frantziako hizkuntza politikaz hitz egin nahi izan dugu berarekin, *Politique linguistique* (2004, Elkar) liburua abiaburu hartuta.

KRISTINA ENCINAR

Argazkiak: Gaizka Iroz

**Lau urte dira *Politique linguistique* argitaratu zenuela. Nolako harrera izan du?**

Aski harrera ona. Adibidez, erran didate Euskararen Erakunde Publikoan (EEP) irakurri zutela artoski. Hemengo problema da baditugula elkarteak lan handia egiten dutenak, baina goragoko ikuspegi batetik ikusteko non gauden eta nora goazen behatzeko ez dago inor edo gutxi.

**Eta euskaratzeko asmorik baduzu?**

Ez, ene ideia izan da zuzentzea bereziki Frantziako gizarteari, ez jadanik aldeko iritzia duten militantei.

**Oraindik irakurri ez dutenei nola aurkeztuko zenieke liburu hau?**

Batzuek erran didate ez zela hain erraz irakurtzen. Guretzat beharbada afera hori biziki garrantzitsua da, baina Iparraldeko gizartearentzat, nire ustez, euskararen geroa eta horrelako gaiak ez dira oraino lehentasunetan. Beharbada jendearen ikusmoldea aldatu da pixka bat, inkestek diote baikorra dela, baina ez da hori erabat ematen oraingo egoeran. Eta liburua nola aurkeztu? Irakur dezatela!

**Kontseilu Nagusiko Hizkuntza Politika sailean aritu zinen 4 urtez. Zer nolako esperientzia izan zen?**



Bai, hori esperientzia bitxia izan zen niretzat. Nehor ez zen orduan, elkarteek lan egiten zuten aspaldidanik baina botere publikoek ez zuten deus egiten, alderantziz, oztopoak

ematen. Orduan beharbada euskalgintzako kideak isilarazteko edo horrelako zerbait, deliberatu zuten behar zutela sortu lanpostu bat, eta ni izan nintzen lehen teknikaria. Bi

hizkuntza banituen orduan, euskara eta biarnesa. Gero sortu zen Euskararen Erakunde Publikoa, nik pres-tatu nituen araudiak, sortu baino lehen, eta gero joan nintzen. Ene-tzat hobe zen. Ni irakaslea naiz, ez nekien zer zen politika, eta han poli-tika ere bada, hizkuntzaren aldeko lanarekin nahasia, horrela da.

### Jende arruntak badaki "hizkuntza politika" zer den?

Badugu Frantzian ideologia nagusi bat aspaldidanik buruetan sartua dena, erran nahi baita hizkuntza bat baizik ukan behar dugula, errazago baita hizkuntza azkar batekin ari-tzea, eta gainontzeko hizkuntzak egon ahal direla ondoan, baina beharrezkoak ez. Adibide bat badu-gu orain Konstituzioaren 75. artiku-luan, non ezarri duten Frantziako hizkuntzak ondarean sartzen direla, baina besterik ez.

### Nolakoa izan beharko litzateke hizkuntza gutxituen hizkuntza politika eta politikaren arteko harremana?

Baditugu hiru eragile: euskararen edo hizkuntza gutxituen alde lan egiten dutenak, politikariak –zeren eta haiek dirua ematen baitute–, eta gizartea, zerren eta gizarteak ez badu nahi salba dezagun edo mintza gai-tezen euskaraz karrikan edo salte-gietan, zertarako lan egin? Hiru era-gileak elkarrekin joan behar dira, bestela, alferrikako lana litzateke. Zeren hartzen baldin badugu EEP, nik erranen dut urrats bat egin dute-la, urrats serio bat, izan ere duela zortzi urte ni neu nintzen, eta orain zortzi lagun dira. Sortu dute tekni-kari sarea herri eta elkargoetan, eta bai, urrundik ikusirik erranen dugu aitzinatzen ari garela. Baina zer era-gin ahal dugun gizartean, zer alda-tzen dugun... ikusi beharko litzateke egitura horren helburua. Dokumen-tu baten izenburuan agertzen da Hizkuntza Politika proiektua: "Hiz-tun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun", eta hori biziki oroko-rra da, orokorrekoa. Ez dakigu zen-bat gazte diren, zein den egiazko nahia, eta abar. Beraz, nire ustez, lan egiten dugu baina oraindik helbu-ruak hobeki finkatu behar dira, epeak, neurgailuak.



**"Frantzian, lehen, hizkuntza gutxituak baztertzeko ziren, eta hiltzeko, trankilki, eta orain ikusten da ondarean sartzen direla, errespetatzen ditugula, baina aldi berean ahalbideak ez dizkiegu ematen"**

### Euskara teknikarien lana positiboa da zuretzat?

Nire ustez positiboa da lehen baino gehiago egiten baita. Problema da gizartean lan hori sarraraztea. Tekni-kariak eman dituzte, lan egiten dute, itzulpen asko egin dituzte eta abar, baina ene ustez, xorta bat dira itsaso-an, lehen urratsa, beharbada. Lanik emankorra da eta izan da irakas-kuntzan. Horretan nik erranen nuke gero eta haur gehiago sartzen direla eskoletan euskara ikasten, baina horrek ez du esan nahi elebidunak izatea. Ez bada paradarik eskola eta gero euskaraz egiteko egungo bizian ez da ezer lortzen. Bereziki Iparral-dean, lanpostu guti dira lotuak euska-rari, orotara erranen dugu mila bat baino gutiago beharbada, zu barne. Ez naiz pesimista, galdetzen baldin badidazu euskara hilko den aski las-ter, nire ustez, ez, zerren eta eskoletan irakasten baita. Baina bestalde, behar-bada egunen batean latinaren gisan izanen da, era batez.

### 2007-10 urteetarako hizkuntza poli-tikarako proiektuaren funtsa "hiz-kuntz gogoa eta motibazioa da". Zer deritzozu?

Motibazio soila ez da eraginkorra izanen, beti kontra adibideak badi-

ra, baina orokorrean ez dut uste Iparraldeko gizartea motibatua denik euskara ikasteko eta biziaraz-teko. Horretaz mintza naiz *Bat* Soziolinguistika aldizkariko 67. zen-bakian, gizarte eremuetan frantsesa eta euskararen tokiak konparatuz, haien arteko desoreka estrukturala agerraraziz.

### Hizkuntza gutxituei buruzko aurreiri-tziak bizirik al daude?

Denetarik bada, Frantzian orokorki lehen aipatu dudan ideologia aldatu da pixka bat. Lehen, hizkuntza gutxituak baztertzeko ziren, eta hiltzeko, trankilki, eta orain ikusten da ondarean sartzen direla, errespetatzen ditugula, baina aldi berean ahalbideak ez dizkiegu ematen. Frantzia da estatu eta herri berezia hizkuntzekin, dakigun bezala, eta bakarrik Europako indar eragilearen-gatik aldatzen ari dira pixka bat, baina bortxaz, ez nahikunde argi batekin.

### Laguntza falta horren erakusle da agian lege berririk ez ateratzea 2009a arte.

Ikusi beharko da lege hori nola ira-kurtzen duten, Konstituzioaren 2. –"Errepublikaren hizkuntza fran-tsesa da"– eta 75. artikulua horiek nola interpretatuko dituzten, baina nire ustez ez dugu deus gehiago eskuratuko lege horren bidez, Ipar Euskal Herriko kasuan bederen. Duela hamar urte horren kontra ziren, eta ez dira bat-batean alda-tuko.

### Euskararentzat posible da gizarte elebakarra?

Gizarte elebakarra ez da posible, oraingo egoeran, ikusten bada zein den frantsesaren eta espainolaren indarra gure herrian. Sortu behar ditugu hizkuntza gutxituentzako eremu elebakarrak bizi daitezen –hemen adibideak dira ikastolak edota irratiaik–. Baina Iparraldean gizarte osoa elebakarra izanen dela euskararekin... nik orain ez dut ikusten, ametsa da. Ikusirik orain-go gizarte modernoan gero eta hizkuntza gehiago menperatu behar ditugula, orduan, zertako baztertu besteak? ■